



Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren 40. bilera

40ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente

Deialdia egin duena: Convoca:	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián
Data, tokia eta ordua: Fecha, lugar y hora	2009ko ekainaren 25a / 25 de junio de 2009 Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea (Cristina Enea) / Centro de Recursos Medio-Ambientales de Donostia-San Sebastián (Cristina Enea) 18:00etan / A las 18:00 horas
Amaiera ordua: Hora de finalización:	20:35ean / A las 20:35 horas
Harremanetarako pertsona: Persona de contacto:	Leire Sarobe (Haizea Ikerketa S.L.)
Telefonia: Teléfono:	943 392229
Helbide elektronikoa Correo electrónico	haizea@haizeaikerketa.com
Gai-zerrrenda: Orden del día	1. Ingurumen Zinegotzi berriaren aurkezpena 2. Aurreko bilerako aktaren onarpena (2009ko martxoaren 26eko bilerari dagokiona) 3. 2009ko Iraunkortasun Txostenaren aurkezpena 4. Ordenantzak: 4.1. Telekomunikazio Sareetako Instalazio Erradioelektrikoak arautzen duen Ordenantza berrikusteko partehartze prozesuaren hasiera 4.2. Ekoeraginkortasunari buruzko Ordenantzaren behin betiko onespeneri buruzko informazioa 4.3. Establezimendu publikoen eta Aisialdi-jardueren Kokapena arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onespeneri buruzko informazioa 4.4. Hondakinen Ordenantza berrikusteko partehartze prozesuaren hasiera: Diagnostikoa, Helburuak, jarduerak 5. Hondartzen Ingurumen Kudeaketa Sistemari buruzko informazioa 6. Urteko programazioa 7. Norberak lekarkeena

	1. Presentación del nuevo Concejal Delegado de Medio Ambiente 2. Aprobación del Acta anterior (correspondiente a la sesión del 26 de marzo de 2009) 3. Presentación del Informe de Sostenibilidad 2009 4. Ordenanzas: 4.1. Inicio del proceso participativo para la revisión de la Ordenanza Instalaciones Radioeléctricas de Redes de Telecomunicación 4.2. Información sobre la aprobación definitiva de la Ordenanza Ecoeficiencia 4.3. Información sobre la aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de la ubicación de establecimientos públicos y actividades recreativas 4.4. Inicio del proceso participativo para la revisión de la Ordenanza de Residuos: Diagnóstico, Objetivos, actuaciones 5. Información sobre el Sistema de Gestión Ambiental de Playas 6. Programación anual 7. Ruegos y preguntas
Parte hartu dute: 17 partaide	Asistieron: 17 Personas

Ingurumenaren Aholku Kontseiluko kideak /Componentes del Consejo Asesor de Medio Ambiente

- **Ingurumenaren Aholku Kontseiluko lehendakaria**/ Presidente del Consejo Asesor de Medio Ambiente:

Denis Itxaso (PSE. Ingurugiroko Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente)
Miguel Angel Díez Bustos (PSE. Hurrengo Ingurugiroko Zinegotzia / PSE. Próximo Concejal de Medio Ambiente)

- **Elkarteak, Herritarrak, Etab**/ Asociaciones, Ciudadanos/As, Etc:

AAVV Hondarpe (Gros)/AAVV Osteguna (Larratxo-Herrera) (Elena Arrieta Yarza)
ATEA (Idoia Lekue Peña)
EA (Ricardo Burutaran)
EGUZKI (Juan M^a Beldarrain)
EMAUS (Begoña Cabaleiro)
DONOSTIA BIZIRIK (Mikel Alonso Arana)
Kutxaespacio (Mikel Goñi)
PP (Juan Andrés Segura)
ULIAKO AUZO ELKARTEA (Txuma Costas)
UPV-EHU. EU EMPRESARIALES (Alberto Díaz de Junguitu)

Udal Teknikariak / Técnicos municipales

Victoria Iglesias (Ingurumen Saileko Zuzendaria/ Directora del Departamento de Medio Ambiente)
Jose M^a Hernandez (Fundación Cristina Enea Fundazioko Zuzendaria / Director de la Fundación Cristina Enea Fundazioa)

Idazkaritza Teknikoa / Secretaría Técnica

Haizea Ikerketa S.L. (Manu González Baragaña)
Haizea Ikerketa S.L. (Maidier Etxaide)
Haizea Ikerketa S.L. (Leire Sarobe)

1. Ingurumen Zinegotzi berriaren aurkezpena Denis Itxasok Ingurumen Zinegotzi izateari uzten dio eta agur egiten du guztien lana eskertuz. Aurkezten ditu, Cristina Enea fundazioko zuzendaria, Jose M^a Hernandez, eta hurrengo Ingurumen Zinegotzia izango den Miguel Angel Díez Bustos. 2. Aurreko bilerako aktaren onarpena (2009ko martxoaren 26ko bilerari dagokiona) Ez dago ekarpenik eta ondorioz akta bere horretan onartu egiten da. Aktan bigarren puntu gisa datorren <i>Aquariumaren inguruan Eguzkik egindako proposamenari</i> dagokionez, eguzkiko ordezkariak galdetzen du ea udaletxetik dagokien entitateei helarazi zaien IAK-ak eginiko eskaria. Victoria Iglesiasek jakinarazten du idatziak bere garaian hiru entitateei [Bokado, Gipuzkoako Ozeanografi Fundazioa eta Gipuzkoako Kostaldeko Zerbitzua] bidali zitzaizkiela. Eguzkiko ordezkariak jakinarazten du, nahiz eta irekitzeko eskaria egin Urgulleko sarrera berriz ere itxita dagoela, horregatik, beharrezkoak diren diligentsiak burutzea eskatu du sarbidea berriz ere ireki dadin. 3. 2009ko Iraunkortasun Txostenaren aurkezpena Denis Itxasok, 2009ko Iraunkortasun Txostena aurkezten du adierazle batzuetan lortutako emaitzak aipatuz. Donostia Bizirikeko ordezkariak eskatzen du aktan jasota gera dadila, <i>3.1. Ingurumenaren Aholku Kontseilua (IAK) osatzen duten elkarten kopuruan aldageta adierazlean</i> 38 elkarte daudela esaten den arren, bilera honetan 10 entitate besterik ez daudela, alderdi politikoak barne. 3.1. adierazlearen koadroaren izenburua aldatzea ere eskatzen du, IAKan partehartzea benetan zer den argitzeko asmoz. Manu Gonzálezek gogorarazten du IAKren funtzionamendu ebaluazio txostenean bileretara joandako partaideen asistentzia jasotzen dela eta alderdi horietan sakontzen dela. EAKo ordezkariaren ustetan datu batzuk kezkarriak dira eta hausnarketa eskatzen dute. <i>5. Babestutako azalera, udalerriaren azalera osoaren arabera</i> adierazlearen "aurpegitxoarekin"	1. Presentación del nuevo Concejal Delegado de Medio Ambiente Denis Itxaso se despide como Concejal Delegado de Medio Ambiente, agradeciendo la labor realizada por todos. Presenta a Jose M^a Hernandez, director de la Fundación Cristina Enea y al próximo Concejal Delegado de Medio Ambiente, Miguel Angel Díez Bustos. 2. Aprobación del Acta anterior (correspondiente a la sesión del 26 de marzo de 2009) No hay aportaciones al acta y se aprueba en consecuencia. En relación al punto 2. <i>Propuesta de Eguzki en torno al tema del Aquarium</i> del acta, El representante de Eguzki inquiere si desde el ayuntamiento se han hecho llegar a las entidades correspondientes la solicitud formulada por el CAMA. Victoria Iglesias informa de que los escritos fueron enviados en su momento a las tres entidades [Bokado, a la Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa y al Servicio de Costas de Gipuzkoa]. El representante de Eguzki informa de que la puerta de acceso a Urgull que se solicitó se abriera al público se encuentra de nuevo cerrada y por tanto solicita se realicen las oportunas diligencias para que se vuelva a abrir. 3. Presentación del Informe de Sostenibilidad 2009 Denis Itxaso presenta el Informe de Sostenibilidad 2009, comentando el resultado obtenido en algunos de los indicadores. El representante de Donostia Bizirik solicita que conste en acta que si bien en el <i>Indicador 3.1. Variación en el número de asociaciones que integran el Consejo Asesor de Medio Ambiente</i> se recoge que hay 38 asociaciones, en esta reunión están presentes tan sólo 10 entidades, incluidos dos partidos políticos. Solicita también que se cambie el enunciado del cuadro correspondiente al indicador 3.1. con el fin de aclarar lo que es realmente participación en el CAMA. Manu Gonzalez recuerda que en el informe de evaluación del funcionamiento del CAMA se recogen las cifras de asistencia a las reuniones y se profundiza en esos aspectos. El representante de EA estima que algunos de los datos son preocupantes y que deberían llevar a la reflexión. Muestra su disconformidad con la cara del <i>Indicador 5. Superficie protegida respecto del total de la superficie del municipio</i>. Considera que,
--	--

ezadostasuna erakusten du. Bere ustez, informazioa jasotzeko oinarriak aldatu direla onartuta ere, datuek norabide negatiboa azaltzen dute. Ingurumen zigiluari dagokionez uste du, garrantzitsua dela ekintzak gauzatzea 2006 urteaz geroztik Ingurumen Zigilura atxikitako hotela bakarra izaten jarrai ez dezan (<i>10. Ingurumen Zigiluren ekimenarekin bat egiten duten hotelen kopurua</i> adierazlea). Ezinbestekotzat jotzen du Zarata Mapa eguneratzea (<i>14. Zarataren eraginpean dagoen biztanleria</i> adierazlea). Bere iritziz, Urumean uraren kalitatea hobetzeko ekintzak burutu beharko lirarteke (<i>19.1. Uraren kalitatearen bilakaera ondoko lekuetan: Estuarioan. Azti-ren itsasoko indize biotikoa "M-AMBI (EQR)"</i> adierazlea). Eguzkiko ordezkariaren esanetan Txostenak ematen dituen datuak ez dira onak. <i>14. Zarataren eraginpean dagoen biztanleria</i> adierazleari dagokionez, datuak kezkarriak direla uste du, gainera berriro neurtu ez izanak egoera are eta kezkarriagoa egin du. Kezkaz ikusten du <i>16.3. Motorizazio-indizea (ibilg/1.000 bizt)</i> adierazlearen hazkuntza, zera ondoriozta baitaiteke: motorizatutako ibilgailu pribatuaren presentzia hazten doala eta bizikleta, garraibide gisa, ez dela alternatibatzat hartzen. <i>22.2. Gaika bildutako hondakinak (%)</i> adierazleari dagokionez, udaletxeak sentsibilizazioan egiten ari den lana aintzat hartuta, onartzen du %34ko gaikako bilketa ez dela emaitza nahikoa, are gutxiago duela urte batzuetako helburua % 50 zenean. Ildo horretan, gogorarazten du bere garaian IAKan ereduazko ekimen bat aurkeztu zela, Añorgan zaborra atez ate jasotzeko eta azkenean ez dela gauzatu. Era berean, Usurbilen burutzen ari den atez ateko bilketa aipatzen du, non oso emaitza positiboak jasotzen ari diren gaikako bilketari dagokionean. Era berean kezkarritzat jotzen du artifizializaturiko lurzoruen datua (<i>4. Artifizializaturiko lurzoru % udalerriaren azalera osoari dagokionez</i> adierazlea). Datu positibo modura urari buruzko adierazlea eta energia berriztagarrien erabilerari buruzkoa azpimarratzen ditu (soilik administrazio publikoaren eremuari buruzkoak izanik ere) eta bizikletaren erabileraren hazkuntza (<i>16.2.</i>	aún aceptando que las bases de obtención de la información han variado, los datos apuntan en un sentido negativo Respecto al Sello Ambiental, cree que es importante llevar a cabo actuaciones para lograr que no sea un único hotel el adherido al Sello Ambiental desde el 2006 (<i>Indicador 10. Número de hoteles adheridos a la iniciativa del Sello Ambiental</i>) Considera imprescindible la actualización del Mapa de Ruido (<i>Indicador 14. Exposición de la población al ruido</i>). Opina que se deberían llevar a cabo actuaciones para mejorar la calidad del agua en el Urumea (<i>Indicador 19.1. Evolución de la calidad del agua en: Estuario. Índice biótico marino de AZTI "M-AMBI (EQR)"</i>). El representante de Eguzki considera que los datos que ofrece el Informe no son buenos. Respecto al <i>Indicador 14. Exposición de la población al ruido</i>, cree que los datos son preocupantes, circunstancia agravada por el hecho de que no se ha vuelto a medir. Ve con preocupación el crecimiento del <i>Indicador 16.3 Índice de Motorización (veh/1.000 hab)</i>; se puede interpretar que los vehículos motorizados privados siguen aumentando su presencia y que la bicicleta como medio de transporte no se considera como alternativa. En cuanto al <i>Indicador 22.2. Residuos recogidos selectivamente (%)</i>, reconociendo las actuaciones de sensibilización que está realizando el ayuntamiento, considera que un 34% de recogida selectiva no es un resultado satisfactorio, máxime cuando hace pocos años el objetivo marcado era el 50%. En ese sentido, recuerda que en su momento se presentó en el CAMA la propuesta de desarrollar una experiencia piloto de recogida puerta a puerta en Añorga que finalmente no se ha llevado a cabo. En ese sentido, menciona la experiencia de recogida puerta a puerta que se está realizando en Usurbil con unos resultados muy positivos respecto a los objetivos de recogida de materiales selectivamente. Considera asimismo preocupante el dato de artifizialización del suelo (<i>Indicador 4. Porcentaje de suelo artifizializado respecto a la superficie del término municipal</i>). Como datos positivos destaca los indicadores de agua y el uso de energías renovables (aún cuando estén circunscritos al ámbito de la administración pública) y el incremento en el uso de la bicicleta (<i>Indicador 16.2. Número de desplazamientos en bicicleta al día</i>).
---	--

adierazlea Bizikletaz egindako joan-etorrien kopurua eguneko).

Donostia Bizirikeko ordezkariak proposatzen du hurrengo adierazleetan "Ikus-kutsadura" nahiz "publizitate euskarriek eremu publikoa jabetza bere egitea" aspektuentzat adierazle bana sortzea. Eremu publikoarekin gertatzen ari denaren inguruan eztabaidatzea beharrezkotzat jotzen du, osasun publikoa eta hiri paisaia babestu beharra dagoelako. Jakinarazten du txosten bat prestatzen ari direla, bere garaian eztabaida tresna gisa helaraziko dutena. Donostia Bizirik elkartearen Igaraberriko lokal berriaren inaugurazioa iragartzen du.

Denis Itsasok azaltzen du Tokiko Agenda 21ek berezko metodologia duela, eta diagnostikoa egiteko eta adierazle egokiak bilatzeko lehen urratsa litzatekeela "Ikus-kutsadura" mahai teknikoren batean barneratzea. Gai honen inguruko monografiko edo hitzaldi bat antolatzea proposatzen du.

Idazkaritza Teknikoak gai honen inguruko informazioa helaraztea iradoki dio Donostia Bizirikeko ordezkariari.

Ikus-inpaktuaren harira, EMAUSEko ordezkariak uste du publizitate kartelak bizitza laburra dutela, berehala hondakin bihurtzen direla eta erabili eta botatzeko kultura sustatzen dutela. Beste hiri batzuetan publizitaterako euskarri gisa papera ez den materiala erabiltzen dela dio eta gainera euskarri horiek energia berriztagarrietan oinarrituta daudela.

4. Ordenantzak:

4.1. Telekomunikazio Sareetako Instalazio Erradioelektrikoak arautzen duen Ordenantza berrikusteko partehartze prozesuaren hasiera

Denis Itsasok jakinarazten du Abuztuan Antenen ordenantzak aztertzeko batzorde bat ezarri zela eta Ingurumen departamentuak zirriborro bat egin berri duela, IAKeko partaide guztiei helaraziko zaiena. Aditzera ematen du udaletxeak baduela antenen instalazioa arautzeko ahalmena hirigintzaren ikuspuntutik, baina ez emisioen ikuspuntutik. Zirriborroaren baitan zehapen-araubide bat jasotzen da behin eta berriz errepikatzen diren ekintzak ekiditeko, hala nola lizentziarik gabe antenak jartzea. Zirriborroari ekarpenak egiteko momentua dela jakinarazten du. Halaber, jakitera ematen du Antenen instalazioa arautuko duen Antenen Plan Berezia idazteko izapideak martxan direla.

bicicleta al día).

El representante de Donostia Bizirik propone que en próximos indicadores se recoja un indicador de contaminación visual o apropiación del espacio público por parte de soportes publicitarios. Cree necesario establecer un debate en torno a lo que está sucediendo con el espacio público, dado que se debe preservar la salud pública y el paisaje urbano. Comenta que están preparando un informe que facilitarán en su momento como elemento de debate. Anuncia la inauguración del nuevo local de Donostia Bizirik en Igaraberri.

Denis Itxaso explica que la Agenda Local 21 tiene su propia metodología y que el primer paso sería la posible integración de la contaminación visual en alguna de las Mesas Técnicas, para realizar un diagnóstico y buscar indicadores adecuados. Propone realizar un monográfico o una charla sobre este tema.

La Secretaría Técnica sugiere al representante de Donostia Bizirik que haga llegar información sobre este tema.

En relación con los impactos visuales, la representante de EMAUS considera que los carteles publicitarios tienen una vida útil muy corta, convirtiéndose enseguida en residuos y siendo generadores de una cultura de usar y tirar. Comunica que en otras ciudades se utilizan soportes publicitarios que no son papel y sustentados además por energías renovables.

4. Ordenanzas:

4.1. Inicio del proceso participativo para la revisión de la Ordenanza Instalaciones Radioeléctricas de Redes de Telecomunicación

Denis Itxaso informa que se estableció en agosto una comisión para estudiar la Ordenanza de Antenas, y que el Departamento de Medio Ambiente acaba de realizar un borrador, el cual se hará llegar a los miembros del CAMA. Informa que el ayuntamiento tiene potestad para regular la implantación de antenas desde el punto de vista urbanístico, no desde el punto de vista de las emisiones. El borrador recoge un régimen sancionador propio para evitar actuaciones reiteradas como la colocación de antenas sin licencia de actividad. Comunica que es el momento de realizar aportaciones al borrador. Anuncia que se han comenzado los trámites para elaborar un Plan Especial de Antenas que regule la colocación de las mismas.

El representante de Eguzki opina que se lleva años dando vueltas a este tema, pero que no se adelanta en nada esta a la situación. Según datos

Eguzkiko ordezkariak uste du urteak direla gai honen inguruan eztabaida sortu zenetik baina ez zaiola egoerari mugarik jartzen. Prentsan argitaratutako datuen arabera, Donostia antena gehien dituen Euskadiko hiria da. Antenen mapa eta zentsurik existitzen den galdetzen du.

Denis Itxasok aditzera ematen du Industria, Turismo eta Merkataritzako Ministerioaren web orrian

[<http://geoportal.mityc.es/visorCartografico/index.jsp>] antenen zerrenda ikus daitekeela eta udaletxeak ez duela dagokion lizentzia ematen aldeztu aurretik Ministerioak berea ematen ez badu.

Era berean azaltzen du, ministerioak emandako lizentzia bai baina udaletxeak emanda ez duen antenaren bat aurkitzen denean, beharrezkoak diren neurriak hartzen direla, eta ondorioz antena askotxo deskonektatu edota kendu direla.

Hondarpe eta Osteguna Bizilagun Elkarteetako ordezkariaren ustetan, dagokion baimena Ministerioak ematen baldin badu udaletxearen eskumena oso mugatua omen da.

Eguzkiko ordezkariak, "Telekomunikazioen sareei dagokien instalazio erradioelektrikoak arautzen dituen ordenantza"-ren 13. Artikulua (Erregistro Berezia) ikusita, galdetzen du zein kasutan neurtuko lituzkeen udaletxeak uhin elektromagnetikoak, artikulua horretan jasotzen baita udaletxeak duela neurketa egiteko erabakiaren ahalmena. Era berean galdetzen du, ea ordenantzak telefono antenak ez ezik mikroantenak ere erregulatzen dituen.

EAKo ordezkariak dio antenak ugaritzen ari direla eta ez daudela behar bezala araututa.

Victoria Iglesiasek uste du mikroantenak ikertu litezkeela.

4.2. Ekoeraginkortasunari buruzko Ordenantzaren behin betiko onespenerari buruzko informazioa

Denis Itxasok aditzera ematen du Eraikinen Eraginkortasunari eta Ingurumen Kalitateari buruzko Udal Ordenantza onartu dela eta gutxi barru argitaratuko dela GAOen.

4.3. Establezimendu publikoen eta Aisialdi-jardueren Kokapena arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onespenerari buruzko informazioa

adelanta en poner coto a la situación. Según datos publicados en prensa, Donostia es la primera ciudad de Euskadi en número de antenas. Pregunta si existe un mapa y censo de antenas. |

Denis Itxaso informa que en la página web del Ministerio de Industria, Turismo y Comercio [<http://geoportal.mityc.es/visorCartografico/index.jsp>] se proporciona el listado de antenas, y que el ayuntamiento no da la licencia correspondiente si el Ministerio no ha concedido su licencia previa. Explica que cuando se localizan antenas con licencia del Ministerio pero sin la licencia del ayuntamiento, se toman las medidas pertinentes, habiéndose desconectado y/o desmantelado bastantes antenas.

La representante de la AAVV Hondarpe y AAVV Osteguna considera que si el Ministerio es el que da el permiso correspondiente, en ese caso la competencia del ayuntamiento debe de ser muy limitada.

El representante de Eguzki, ante el *Artículo 13. Registro Especial* de la "Ordenanza reguladora de las Instalaciones Radioeléctricas pertenecientes a las Redes de Telecomunicaciones", pregunta en qué caso/ el ayuntamiento realizaría alguna medición de ondas electromagnéticas, dado que en dicho artículo se recoge que el ayuntamiento se reserva el derecho de realizar la medición. Pregunta asimismo si la ordenanza regula solamente las antenas de telefonía o si se regulan también las microantenas.

El representante de EA opina que las antenas están proliferando mucho y que no están debidamente reguladas.

Victoria Iglesias considera que se podrían investigar las microantenas.

4.2. Información sobre la aprobación definitiva de la Ordenanza Ecoeficiencia

Denis Itxaso comunica que se ha aprobado la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética y Calidad Ambiental de los Edificios, la cual se publicará en breve en el BOG.

4.3. Información sobre la aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de la ubicación de establecimientos públicos y actividades recreativas

Denis Itxaso explica algunas de las modificaciones recogidas en la Ordenanza reguladora de la ubicación de establecimientos públicos y actividades recreativas, informando de que se ha

Denis Itxasok, Establezimendu publikoak eta atsedeen jarduerak kokatzeko Udal Ordenantzaren jasotako zenbait aldaketa azaltzen ditu, eta jakinarazten du behin betiko onartzeko bidean dagoela. PPko ordezkariak azaltzen du, 4 motako lokalei ezarritako mugak zirela eta egin zuela bere taldeak kontra. 4.4. Hondakinen Ordenantza berrikusteko partehartze prozesuaren hasiera: Diagnostikoa, Helburuak, jarduerak Denis Itxasok jakinarazten du hondakinei buruzko ordenantza berrikusteko partehartze prozesuari hasiera eman zaiola. Donostia Bizirikeko ordezkariak gogorarazten du IAKak errausketaren kontra egin zuela eta gaia gogorra dela. Proposatzen du ordenantzaren izenburua izatea "Errausketarik hasiera bertatik ez" Herrerako ordezkariak aditzera ematen du zenbait auzotan pairatzen duten arreta falta, zaborrontzi zerbitzuari dagokionez, auzo desberdinetan filosofia eta jardunbide berberak jarraitzen ez direla argudiatuz. Denis Itxasok arreta eskaintzeko konpromisoa hartzen du San Marcoseko Mankomunitatetik utzikeria hau eman ez dadin. Denis Itxasok jakinarazten du sortzen doazen lehenengo materialak helaraziko direla eta nahi duenak prozesu honetan parte har dezakeela. 5. Hondartzen Ingurumen Kudeaketa Sistemari buruzko informazioa Denis Itxasok udalaren Hondartzen Ingurumen Kudeaketa Sistemaren ingurumen aitorpena aurkezten du. Aitorpen hau urtero egiten da eta ikuskaritza bat igarotzen zaio. Victoria Iglesiasek aldarrikapenaren datu esanguratsuenak azpimarratzen ditu. Eguzkiko ordezkariaren ustez datuak erlatiboak dira eta faltan botatzen du tolo eta bestelako kontzeptuengatik lortzen diren irabazien daturik ez izatea. Era berean, hondartzetan jasotako hondakinen kudeaketari buruz galdegiten du, adieraziz, itsasotik hondartzetara iritsitako egurrak konposta egiteko erabili beharko lirartekeela materia organikoa direlako eta oso hezetasun maila baxua dutelako. Denis Itxasok dio, Diputazioak jakinarazi zuenez, Lapatzeko zentrolean konposta egiteko materia	procedido a su aprobación definitiva. El representante del PP expone que se opusieron por los límites que se imponen respecto de los locales de tipo 4. 4.4. Inicio del proceso participativo para la revisión de la Ordenanza de Residuos: Diagnóstico, Objetivos, actuaciones Denis Itxaso comunica que se ha comenzado con el proceso participativo para la revisión de las ordenanzas de residuos. El representante de Donostia Bizirik recuerda que el CAMA se opuso a la incineración, y que este tema resulta duro. Propone que el titular de la ordenanza sea "Incineradora de entrada no". La representante de Herrera pone de manifiesto la desatención a la que ciertos barrios son sometidos, en referencia a la insuficiencia en el servicio de contenedores, alegando que no se aplica la misma filosofía ni, por supuesto, la misma praxis. Denis Itxaso se compromete a prestar atención a que desde la Mancomunidad de San Marcos no se dé esta desatención. Denis Itxaso informa que se hará llegar los primeros materiales que se vayan produciendo y que quien quiera podrá participar en este proceso. 5. Información sobre el Sistema de Gestión Ambiental de Playas Denis Itxaso presenta la declaración ambiental del Sistema de gestión Ambiental de las Playas del municipio, declaración que se realiza anualmente y se somete a auditoría. Victoria Iglesias resalta los datos más significativos de la declaración. El representante de Eguzki opina que los datos son relativos y echa en falta que no aparezcan los datos de ingresos por toldos y otros conceptos. Se interesa asimismo por el apartado relativo a la gestión de los residuos recogidos en las playas, manifestando que los maderos que arriban como flotantes desde el mar son materia orgánica con un grado de humedad muy bajo que debería ser aprovechado para compost. Denis Itxaso participa que ante la comunicación por parte de la Diputación de la falta de material estructurante para la realización de compost en la planta de Lapatz, este tipo de residuos recogidos en las playas se están llevando actualmente a compostar.
--	--

egituratzailea falta zenez, egun hondartzetan jasotako material hauek konpostatzera eramaten ari direla. [Ulia Bizilagun Elkarteko ordezkariak bilera uzten du]. Eguzkiko ordezkariaren iritziz, interesgarria litzateke, Aste Nagusian zehar erretako su artifizialen ondorioz uretan metal astunak aurkitzeko azterketa sakonagoa egitea, horrela material piroteknikoak badian eragindako kutsadura neurtu ahal izateko eta metal astunen presentzia zehazteko analitika espezifikoak egin dadin. [Denis Itxasok bilera uzten du]. Eguzkiko ordezkariak faltan botatzen du aitorpenean Kontxan toldo eta eguzkitako gehiegi jartzeak dakarren leku falta ez aipatzea, eta okupazio hau dela eta Kostako Zerbitzutik udaletxeari eskatutako betebeharren inguruan galdegiten du. Domeinu Publiko Itsas-Lehortarra (DPIL) okupatzeko urteko baimenaren kopia bat eskatzen du. 6. Urteko programazioa Victoria Iglesiasek IAKaren programazio proposamenaren berrikuspen bat egiten du, jarraian inork ekarpenik duen galdetuz. EAKo ordezkariak proposatzen du ordenantzak IAKan aurkez daitezela ideiak proposatzeko aukera dagoenean eta ez jada itxiak daudenean. Manu Gonzalezek gogorarazten du IAKaren funtzionamenduaren ebaluazioan egoera hau jasotzen zela eta aspektu hori hobetzen saiatzen ari direla. Victoria Iglesiasek uda ondoren jorratzeko monografiko bi aukeratzea proposatzen du. Donostia Bizirikeko ordezkariak ikus-kutsadura monografiko berri gisa aintzat hartzeko eskatzen du. [PPko ordezkariak bilera uzten du]. [UPV-EHU. ENPRESA-IKASKETEN UEko ordezkariak bilera uzten du]. IAKeko partaideen arteko ideia truke baten ondoren 2009ko monografikoetarako hiru gai proposatzen dira (Kutsadura elektromagnetikoa, Zezenketak eta Donostiako hiri ereduaren ingurumen eraginak).	[El representante de la AAVV de Ulía abandona la reunión]. El representante de Eguzki opina que sería interesante realizar una analítica más amplia para detectar la presencia de metales pesados en el agua tras la quema de fuegos durante la celebración de la Semana Grande, de modo que sea posible determinar la contaminación que pueda producir la quema de material pirotécnico en la bahía y que se haga una analítica específica para determinar la presencia de metales pesados. [Denis Itxaso abandona la reunión]. El representante de Eguzki echa en falta que en la declaración no se mencione la falta de espacio en la Concha debida a la sobreinstalación de toldos y sombrillas, y pregunta por las obligaciones que desde el Servicio de Costas se requieren al ayuntamiento en relación a dicha ocupación. Solicita que se le entregue una copia del Permiso anual para ocupación de DPMT [Dominio Público Marítimo Terrestre]. 6. Programación anual Victoria Iglesias realiza un repaso de la propuesta de programación del CAMA, preguntando a continuación si alguien tiene alguna propuesta. El representante de EA propone que las ordenanzas se lleven al CAMA cuando todavía hay tiempo de incorporar ideas, no cuando estén cerradas. Manu González recuerda que en la evaluación del funcionamiento del CAMA se recogía esta circunstancia y que se está tratando de mejorar en este aspecto. Victoria Iglesias propone seleccionar dos monográficos para desarrollar después de verano. El representante de Donostia Bizirik solicita que se incorpore la Contaminación Visual como un nuevo monográfico. [El representante del PP abandona la reunión]. [El representante de UPV-EHU. EU EMPRESARIALES abandona la reunión]. Tras un intercambio de opiniones entre los miembros del CAMA, se proponen tres temas para monográficos durante el 2009 (Contaminación electromagnética, Corridas de toros e Implicaciones ambientales del modelo urbano donostiarra). Tras debatir en torno a la fecha oportuna para realizar el monográfico de Corridas de Toros se toma la decisión de organizarlo en el mes de junio
--	---

Zezenketen monografikoaren data egokiaren inguruan eztabaidatu ondoren 2010eko ekainean antolatzeko erabakia hartzen da, eta urte horretako monografikoen programazioaren barne sartzeko konpromisoa hartzen da.

2009an egingo diren monografiakoak hurrengoak izango direla erabakitzen da: Kutsadura elektromagnetikoa eta Donostiako hiri ereduaren ingurumen eraginak. Urriko lehenengo hamabostaldian eta abenduan ospatzeko hurrenez hurren.

IAKeko partaideei proposatzen zaie monografiko bi hauen metodologia, edukiak, hizlariak, eta abarren inguruko ekarpenak Idazkaritza Teknikoari bidaltzea.

EMAUSeko ordezkariak jakinarazten du Espainiako Iraunkortasunaren Behatokiaren urteko txostena argitaratu dela, eta bertan Donostiaren aztarna ekologikoaren inguruko datu kezagarriak jasotzen direla [http://www.sostenibilidad-es.org/Observatorio+Sostenibilidad/esp/PubInd/InformeAnual/Informe+2008/]. IAKeko Idazkaritza Teknikoak bidaliko die esteka partaideei.

Manu Gonzalezek proposatzen du IAKeko partaideek Idazkaritza Teknikoari beraien lehentasun-hurrenkera bidaltzea 2010 urteko monografikoak zeintzuk izango diren adosteko.

7. Norberak lekarkeena

Eguzkiko ordezkariak galdetzen du ea Bokado enpresari, Gipuzkoako Ozeanografi Fundazioari eta Gipuzkoako Kostaldeko Zerbitzuari IAKren akordioa bidali zitzaizen non "Aquariumeko Terraza" izenez ezagutzen den Domeinu Publiko Itsas-Lehortarra ostalaritza edo merkatal helburuekin okupatzea onartezina zela onartzen zen.

Victoria Iglesiasek ziurtatzen du aipatutako akordioa bidali egin zela.

Eguzkiko ordezkariak aditzera ematen du duela hiru edo lau hilabete idatzi bat bidali zela udaletxera hiriko parkeetan kreosota agertzen zela eta. Idatzi horretan eskatzen zen Donostian kreosota zuten guneen mapa bat egitea eta produktu hori pixkanaka kentzeko plan bat diseinatzea, eta gehitzen du oraindik ez dutela erantzunik jaso.

Victoria Iglesiasek adierazten du Eguzkiko ordezkariak berak eginiko eskariaren inguruan zegokion kontsulta egin zela, eta Mantentze-Zerbitzutik hiri-altzari gisa erabiltzen dela jakinarazi zitzaizela baina aldeaz aurretik kutsadura

de 2010, con el compromiso de integrarlo en la programación de monográficos que se realice para dicho año.

Se establece que los monográficos a celebrar en 2009 serán Contaminación electromagnética e Implicaciones ambientales del modelo urbano donostiarra, a celebrar durante la primera quincena de octubre y diciembre respectivamente.

Se propone a los miembros del CAMA que envíen sus propuestas para metodología, contenidos, ponentes, etc. de estos dos monográficos a la Secretaría Técnica.

La representante de EMAUS comunica que se ha publicado el Informe anual del Observatorio de la Sostenibilidad en España, en el que se recogen datos preocupantes sobre la huella ambiental de Donostia [http://www.sostenibilidad-es.org/Observatorio+Sostenibilidad/esp/PubInd/InformeAnual/Informe+2008/]. La Secretaría Técnica enviará el enlace a los miembros del CAMA.

Manu González propone que los miembros del CAMA envíen sus preferencias para establecer cuáles deben ser los monográficos de 2010 a la Secretaría Técnica.

7. Ruegos y preguntas

El representante de Eguzki pregunta si se envió a la empresa Bokado, a la Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa y al Servicio de Costas de Gipuzkoa el Acuerdo del CAMA de considerar como no aceptable la ocupación con fines hosteleros-comerciales del dominio público marítimo terrestre conocido como "terraza del aquarium".

Victoria Iglesias confirma que se envió dicho acuerdo.

El representante de Eguzki comunica que hace tres o cuatro meses se envió por Registro un escrito al ayuntamiento en relación a la presencia de creosota en parques de la ciudad, solicitando la elaboración de un mapa de las zonas de Donostia con presencia de creosota así como el diseño de un plan de retirada progresivo, y añade que aún no han recibido respuesta.

Victoria Iglesias expone que se realizó la consulta pertinente ante la petición que sobre este mismo tema realizó el representante de Eguzki, y que desde Mantenimiento se le informó que se utiliza como mobiliario urbano pero que lleva un tratamiento descontaminante.

El representante de Eguzki, el cual manifiesta sus dudas ante el hecho de que todo material que contiene creosota sea descontaminable, solicita que se conteste al escrito presentado en registro.

kentzeko tratamendua jasotzen duela. Eguzkiko ordezkariak, kreosota daramaten material guztietan kutsadura kentzea posible izatea zalantzan jarritz, erregistroan aurkeztutako eskariari erantzuteko eskatzen du. Idazkaritza Teknikoak idatziaren kopia bat bidaltzeko iradokitzen dio Eguzkiko ordezkariari, horrela, egiten diren tramiteen jarraipena egiteko aukera egon baita. Eguzkiko ordezkariak jakinarazten du oraindik ez zaiela 2008ko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu. EAKo ordezkariak iragartzen du ekainaren 26an HAPOaren behin behineko onespina egingo dela eta eskatzen du IAKren bileraren batean HAPOan bertan jasotzen diren parke eta lorategiak babesteko irizpideak azaltzea. Donostia Bizirikeko ordezkariak zera eskatzen du, Mantentze Zerbitzuari eska diezaiotela, Cristina Enea Parkeko hondakinen bilketaren ardurapean egonik, asfaltodun guneeetan hostoak harrotzeko erabiltzen duten sistemaren egokitasunaren eta alternatiba posibleen (baita bilketa hori nahita ez burutu behar diren) inguruko azalpenak eman ditzaten eta, halaber, gaur egun motor bidez egiten den zakarrontzien bilketa sistemaren egokitasunari buruzkoak ere. Bilera amaitzen da.	La Secretaría Técnica solicita al representante de Eguzki que envíe una copia del escrito, de forma que se pueda localizar y hacer un seguimiento de los trámites efectuados. El representante de Eguzki informa que aún no se les ha abonado la segunda parte de la subvención de 2008. El representante de EA informa de que el 26 de junio se procederá a la aprobación provisional del PGOU, y solicita que en alguna sesión del CAMA sean explicados los criterios de protección de parques y jardines recogidos por el mismo. El representante de Donostia Bizirik solicita que se requiera al Servicio de Mantenimiento Urbano, responsable de la recogida de residuos en el Parque Cristina Enea, para aclarar la idoneidad y posibles alternativas del sistema de soplado de hojas en zonas asfaltadas (incluyendo la conveniencia de realizar dicha recogida) y del sistema de recogida de papeleras, realizado actualmente en moto. Finaliza la reunión.
---	--